

# azpeitianzer?

udal aldizkaria 143. zenbakia  
2011ko abendua



denon artean

Herritarren parte-hartze  
kanpaina abian da

# ale honetan zer?

- 3 Proposamenak-kexak balorazioa
- 4 Gabonetako ekintzak
- 5 Lapatz
- 6 Kirol patronatua
- 10 Erreportajea
- 11 Motxean
- 12 Santo Tomas
- 14 Agenda

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi  
arren, zure etxean jaso  
dezakezu Azpeitian Zer?  
aldizkari hau posta bidez.  
Egin eskaria 943 15 71 85  
(Alkatetza) telefonoan.



## telefono interesgarriak

|                                |              |                        |              |                                        |              |
|--------------------------------|--------------|------------------------|--------------|----------------------------------------|--------------|
| Zentralita                     | 943 15 72 00 | Euskara Patronatua     | 943 81 45 18 | Bailarako Nekazari                     |              |
| Alkatetza                      | 943 15 71 85 | Udal Euskaltegia       | 943 81 19 47 | bulegoa                                | 943 81 24 85 |
| Idazkaritza                    | 943 15 71 98 | Lapatz Zabortegia      | 943 15 18 75 | Enplegu bulegoa                        | 943 15 03 00 |
| Kontuhartzailtza               | 943 15 71 89 | Azpeitia Lantzen S.A.  | 943 15 71 83 | 1. Epaitegia                           | 943 02 51 91 |
| Hirigintza                     | 943 15 71 91 | Ingurugiro Etxea       |              | 2. Epaitegia                           | 943 02 51 92 |
| Gizarte Zerbitzuak             | 943 15 71 92 | Fundazioa              | 943 15 17 13 | Erregistro Zibila                      | 943 02 51 99 |
| Kultura                        | 943 15 70 68 | Tokiko Agenda 21       | 943 15 70 70 | DYA                                    | 943 46 46 22 |
| Komunikazioa                   | 943 15 79 82 | Kontsumitzaileen       |              | Gurutze Gorria                         | 943 85 32 97 |
| Kirolak                        | 943 15 00 95 | Informaziorako bulegoa | 943 15 71 93 | S.O.S. Deiak                           | 112          |
| Parekidetasuna                 | 943 15 79 28 | Baigera I              | 943 81 44 64 | Taxiak                                 | 943 81 13 07 |
| Iturritxiki Ludoteka           | 943 15 11 79 | Baigera II             | 943 81 23 89 | Urkome                                 | 943 81 65 00 |
| Txiki-Txoko Ludoteka           | 943 15 05 16 | Ingurugiro Etxea       |              |                                        |              |
| Zapo Txoko                     | 943 15 71 61 | Museoa                 | 943 81 24 48 | Sexologia zerbitzua                    | 943 15 10 30 |
| Gazte Informazio Bulegoa (GIB) | 943 15 71 60 |                        |              | Etxebizitza bulegoa                    | 943 81 66 99 |
| Eguneko Zentroa                | 943 15 74 96 | Alkoholiko Anonimoak   | 629 14 18 74 | Astearte eta ostegunetan               |              |
| Liburutegia                    | 943 15 71 95 | AL-ANON Alkoholikoen   |              | 18:30etik 19:00etara eta asteazkenetan |              |
| Udaltzainak                    | 943 15 13 13 | Sendiak                | 943 47 54 03 | 12:00etatik 14:00etara.                |              |
| Suhiltzaileak                  | 112          | Trenaren Museoa        | 943 15 06 77 | Baserritarren produktuen               |              |
| Igerilekua                     | 943 81 41 21 | Anbulatorioa           | 943 02 54 00 | merkaturatze bulegoa                   | 943 15 10 29 |
| Kiroldegia                     | 943 81 30 69 | Larrialdiak            | 943 02 54 01 | Astearteetan 10:00etatik 13:30era eta  |              |
| Izarraitz Pilotalekua          | 943 81 25 63 | Ertzaintza (Azkoitia)  | 943 08 37 80 | ostegunetan 16:00etatik 19:30era.      |              |



# Proposamenei emandako erantzunak, datutan

## Herritarrek egiten dituzten iradokizunei erantzunak ematen dizkie Udalak

Herritarrek ehunka kexa, iritzi eta iradokizun bidali dituzte 2011 urte honetan zehar udaletxeko sarreran dagoen gutunontziaren eta [www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net) webgunearen bitartez. Ontzian jasotzen diren proposamen guztiak banan-banan irakurri eta sailkatzen dira, sail bakoitzeko arduradunak edo zinegotziak erantzuna emateko.

“Erreminta baliagarria zaigu herritarren arazoak gertuagotik ezagutzeko. Hala ere, bestelako bitartekoak ere baditugula gogorazi nahiko nuke, besteak beste, udaletxera bertara etorri eta eskaera orria beteta”, agertu du Aritz Epelde Zerbitzu Orokorrak saileko batzordeburuak.

Modu honetan, urte honetan jaso diren iradokizun askori irtenbidea eman zaie. Askoren artean, hauek aurkitzen dira:

- Barandak ezarri dira Betharram ikastetxeko pilotalekuen gainean eta Ildefonso Gurrutxagako garajeen sarreretan.
- Barrenetxe eta Telleria arteko bidea asfaltatu da.
- Urrestillako saneamendua eta uholdeen aurkako proiektua abian jarri da.
- Kotsalde baserrirako bidea konpondu da.
- Perdilegi Ikastolako pilotalekua estali da.
- Ikasberri Ikastolan haur parkea egin da.
- Urrestillatik Urrakirako bi bideak konpondu dira.

Egindako edota egiten ari diren lan hauez gain, Udalak baditu eskuartean beste hainbat proiektu baina arduradunek auzo eta bizilagunekin batera aztertu nahi ditu egitea komeni den edo bestelako beharrak lehenetsi behar diren jakiteko.

“Azpeitiarrak beren iradokizunak ematera gonbidatu nahi ditugu, izan ere, aurrerantzean ere kexa eta iritziak kontutan hartzen jarraituko dugu. Gure asmoa, bizilagunekin batera Azpeitiko herria hobetzen joatea baita”, amaitu du Epeldek.



## [www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net)

Sartu zaitez [www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net) udal webgunean

- **Tramiteak eta ordainketak** etxetik egiteko modua eskaintzen dizu.
- **Udal albisteak** uneoro ezagutzeko.
- Zure **kexa, iritzi eta iradokizunak** plazaratzeko.
- Plenoetako **aktak, udal ordenantzak, hiri antolamenduaren plan orokorra** eta beste hainbat dokumentu ofizial kontsultatzeko.



- Herriaren inguruko **informazio erabilgarria** eskuratzeko, ekitaldien agenda eta guzti.

### Eta gainera:

- **Sexologia zerbitzua on-line:** hileko azken ostiralero sexologoak zuen kezka on-line erantzungo ditu.
- **Udal liburutegia:** bertako katalogora on-line sartzeko aukera eskaintzen dizu udal webguneak.

**[www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net).** Udala zure eskura, klik batean.



# Gabonetarako prest!

Bertan Merkatarik elkartea eta Azpeitiko Udalak antolatuta jolasak, txapelketak eta zozketak izango dira



**b**ertan Merkatarik Elkartea eta Azpeitiko Udalak bat egin dute Gabon garaia ekitaldiz betetzeko. Besteak beste, haurrentzat jolasak, zozketak eta kirol txapelketak izango dira hurrengo asteetan zehar.

Santa Luzi egunean (abenduak 13) kaleak argiz piztu ziren Gabonei ongietorria emanez. Guztira, 30.000 argiz bete dira Azpeitiko kaleak: "LED sistemakoak dira, gaur egun merkaturan dauden gutxieneko kontsumoa duten argiak dira, eta AGENDA 21eko edukiak errespetatzen dituzte. Forma aldetik berriz, tridimentsionalak dira; egunez dekoratzeko eta gauez argia emateko eta kolore gama desberdinak dituzte".

Bestalde, 2.000 euro zozkatuko dituzte merkatariek. Diru kopuru hau 8 saritan banatuko dute: 500 euroko 2 sari, 200 euroko 4 sari eta 100 euroko 2 sari. Irabazlea izateko, herritarrek euren datuak eman beharko dituzte Bertan elkarteko saltokietan erosketa bat egiten duten bakoitzean. Zozketa egunak abenduaren 23an, 30ean eta urtarrilaren 5ean izango dira.

Umeen Gabon kanta txapelketa ere ospatuko da, horrela, abenduaren 24ean egingo da sariaketa 13:00etatik aurrera. Irabazleek 100€ jasoko dituzte, bigarren-geok 75€ eta hirugarren-geok, 50€.

Gabonetako PIN parkea ere zabalduko dute Izarraitz pilotalekuan. Abenduak 26, 27, 28, 29 eta 30 eta urtarrilak 2, 3 eta 4 egongo da zabalik 16:00etatik 20:00etara. Bost urte bitarteko haurrentzat ohe elastikoak, ludoteka berezia eta pilotaz betetako behia egongo dira, 5 eta 10 urte bitartekoentzat, aldiz, tigre tobogana, giza-futbolina, guitar hero, puzgarriak eta bi ohe elastiko ezarriko dira.

Azkenik, 3x3 saskibaloia txapelketa antolatu da abenduaren 30ean, Iraurgi Saskibaloia elkartearen laguntzarekin. Txapelketa 9:00etan hasiko da Betharram ikastetxean eta bi kategoriatan banatuko dira; benjaminak eta alebinak.



# Azpeitia usainik gabe

Arazoari behin betiko irtenbidea emateko garaia dela uste du Udal Gobernuak

**a**zken hilabeteetan Lapatz inguruko eta Azpeitiko bizilagun ugari gerturatu dira Udalera herrian dagoen usainaz kexatzeko. Azpeitiko Udalak bilera ugari egin ditu gai honen inguruan, bizilagun, arduradun eta hainbat instituzioetako teknikariek, arazoa aztertu eta ahalik eta aterabide azkarrena emateko asmoz. “Gure legealdia hasi orduko izan ditugu harremanak Gipuzkoako eta Eusko Jaurlaritzako arduradunekin, eta behin eta berriz jakinarazi diegu Azpeitian gertatzen ari dena ezin dela onartu”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzio eta bere arduradunei Azpeitian gertatzen ari dena oso larria dela adierazi nahi dio Udalak, izan ere, azpeitiarrak urte

luzez zabortegiak sortzen ari den usaina sufritzen ari dira.

**“eskualdean ere guk daramagu zama, zabortegiaren kalteak Azpeitiko lurrak eta biztanleak pairatzen dituzte”**

Zabortegia ixteko eskaera luzatu zuen Azpeitiko Udalbatzak urrian 4ean egindako Osoko Bilkuran. Horrela, zabortegia adostutako epean ixtea exijitzen du. “Baina hori ez da nahikoa. Azpeitiak Gipuzkoa osoarekiko elkartasuna adierazi duela ezin du inork zalantzan jarri. Elkartasun hori

benetakoa dela ere ez. Bestela pentsatu beste zabortegiak itxita nola dauden, eta aldiz gurea irekita. Eskualdean ere guk daramagu zama. Zabortegiaren kalteak Azpeitiko lurrak eta biztanleak pairatzen dituzte”, gaineratu du Etxeberriak.

Horregatik, nahikoa dela esateko unea dela uste du Udalak, “bizilagunen eguneroko bizitza normala une hauetan ia ezinezkoa da egitea. Askoren negozioak ere kinka larrian daude. Ondorioz, Azpeitiak ezin du itxaron, eta zabortegiak sortzen dituen arazoak konpontzeko urgentziazko neurriak exijitzen dizkiegu arduradun guztiei. Eta arazoengatik hitz egiten ari garenean argi eta garbi esan nahi dugu, usainaz ari gara”, amaitu du alkateak.

**Ez dugu Lapatzik nahi, ez Azpeitian eta ez inon**



# Oreka mantentzeko neurriak hartu ditu Kirol Patronatuak

Hiru igerileku izatera pasatzeak gastu garrantzitsua ekarri du

Udaletxeek, herritarren administrazio-rik gertukoena izanik, bere gain hartu dute oinarritzko eginkizuna den kirolaren kudeaketa eta azkenaldian, gizarteak kirola osasuna bezala ikustearren arrazoi nagusia dira.

Instalakuntza eta zerbitzuen eskaera goraka doa eta bitarteko eta ekipamendu teknifikatu eta sofistikuak exijitzen dira, hauek garestiagoak izan eta mantentze lan garestiagoak dituztelarik.

Aurreko urteetako datuak eta Kirola patronatuaren aurrekontuaren egoera aztertuz, Azpeitiko Udalak

organismoaren tasak igotzea onartu zuen 2011ko urriaren 21ean egindako Osoko Bilkuran. Pairatzen ari garen garaietarako erabaki eztabaidagarria izan daiteke, baina era berean, Udaleko diru-kutxaren egoeraren aurrean, oso errealista.

Produkzio kostuak igotzen ari dira urtez urte eta hala ere, kostu hauek ez dira tasa edota prezio publikoetara igarotzen: "2011 urte honetan hiru igerileku klimatizatu erabilgarri daude (helduentzat 2 eta haurrentzat 1) orain arte bi zirenean. Igeriketarako 6 kale izatetik, 10 kale izatera igaro gara. Honek guztiak gastu garrantzitsua ekarri dio

Kirol Patronatuari eta defizit edo galera nork ordaindu behar duen eztabaida amaiezina sortu du", adierazi du Manuel Unanue Kirol batzordeburuak.

Gauzak horrela, Kirol Patronatuaren auto-finantzazio portzentajea honela banatuta egon beharko lukeela erabaki du Azpeitiko Udalak:

- %60 Kirol Patronatuaren diru-sarrerak
- %40 Udalaren diru-laguntza

"Oreka honetara iristeko erabaki du Udalak Kirol Patronatuaren tasak igotzea", agertu du Unanuek.

## Inbertsio ona


Kirola egitea inbertsio ona da, izan ere, zenbat eta gehiago praktikatu osasun hobea lortu eta prezioa merkeagoa izango da. Adibide gisa, 18 urtetik gorako pertsona Kirol Patronatura harpideduna astean behin joanez gero, saioa 3,47 euro kostatzen zaio, astean bitan joanda 1,73 euro ordainduko du... Ikus ondorengo taulan Azpeitiko Kirol Patronatuko urteko abonuen prezioak:

| Abonu mota                  | 2011 urtea  | 2012 urtea  |
|-----------------------------|-------------|-------------|
| Banakakoa 18 urtetik behera | 96,31 euro  | 111,72 euro |
| Banakakoa 18 urtetik gora   | 152,62 euro | 177,04 euro |
| Familiarra                  | 237,21 euro | 275,16 euro |
| Erretiratu eta pentsiodunak | 114,46 euro | 132,78 euro |

2012 urtean langabezia dauden pertsonak, 2011 urtean ordaindu zuten berdina ordainduko dute

2012 urteko abonuek hilean hainbesteko prezioa suposatuko dute:

|                             |            |
|-----------------------------|------------|
| Banakakoa 18 urtetik behera | 9,31 euro  |
| Banakakoa 18 urtetik gora   | 14,75 euro |
| Familiarra                  | 22,93 euro |
| Erretiratu eta pentsiodunak | 11,07 euro |



Harpidedunek hamaika zerbitzu dituzte **GUZTIZ DOAN** eta gainera, Kirol Patronatuak eskaintzen dituen askotariko ekintza desberdinetan beherapen garrantzitsuak jasotzen ditu:

- 2 igerileku klimatizatu 27,5° (10 kale)
- Fitness/kardiobaskular gela
- Gimnasia eta luzaketa gela
- Umeentzat igerileku klimatizatu 30°
- 2 pilotaleku txiki
- Squash pista
- Udarako igerileku ludikoak
- 2 ping-pong mahai
- 2 tenis pista
- Aldagelak, armairu eta dutexkin
- Rokodromoa
- 2 padel pista
- Muskulazio gela (kiroldegian)
- Kirol anitzeko pista
- Belar artifizialeko futbol-zelaia (100x60)

## Kirola egitearen onurak

Kirola praktikatzeko edozein adin da ona eta horretarako, Udalak pasealekuak, bidegorriak edota kirolarentzat eraikuntzak egokitzen ditu. Modu honetan, herritarrek aukera zabala dute kirol egiteko eta aitzakia gutxi ez egiteko. Modu honetan, Kirol Patronatuak gaur egun dituen 5.945 abonatuak kirolen bat praktikatzen dute Udal instalazioetan.

Kirola praktikatzearen onuren artean, ondorengo hauek aurkitzen dira:

- Estresa gutxitzen du
- Auto-estima igotzen du
- Lagun-aldea handitzen du
- Ohitura desagokiak saihesten dira
- Atsedena hobeto hartzen da

“Garbi gelditzen dena zera da, kirola egiten duenak osasunean inbertitzen duela eta Udalak eskaintzen dituen zerbitzu desberdinek, euren prezioekin eta kirolak eragiten dituen onurekin, kirola praktikatzea merkea denaren konklusiora heltzen gara. Kirol Patronatutik abonatu guztien nahiak asebetetzeko lanean ari gara, kalitate-prezio orekatu bat eskainiz”, amaitu du Unanuek.



## Herritar ugarirekin abiatu du udalak parte hartzearen bidea

Azpeitiarrek euren proposamenak egiteko bitarteko desberdinak ezarri ditu Udalak

**E**lkarlanean emaitza hobeagoak lortzen dira. Horren uste sendoa du Udalak eta Udal Gobernu osatu bezain pronto, Udaleko bitartekoak herritarren esku ipini eta bidea herriko taldeekin elkarlanean egiteko konpromisoa hartu zuen herriko eragile eta elkarte desberdinekin uztailaren 13an egindako batzarrean.

Asmo eta konpromisoak egi bihurtzeko ordua iritsi da eta Udalak parte hartzeko bide desberdinak eskaini ditu. Ekimena abenduaren 14ean Sanagustin kulturgunean aurkeztu zen eta azpeitiarrek ez zuten hutsik egin, Udalarekin eskutik helduta joateko prest daudela erakutsiz.

“Egunerokoan harreman asko izan ditugu hainbat arlotako eragileekin: kultura, kirola, festak, enpresak, sindikatuak, auzoak... eta aurreko legegintzaldian Udala eta taldeen arteko elkarlana bultzatzeko sortu ziren mahaiak martxan

mantendu ditugu. Arloetako mahaiak, ekarpen garrantzitsuak direla uste badugu ere, bide hori sakondu beharra ikusten dugu. Gaurkoan beste pauso bat eman nahi dugu”, agertu zuen Ainhoa Beristain Euskara eta Auzoak sailetako zinegotziak.

---

**“arloetako mahaiak, ekarpen garrantzitsuak direla uste badugu ere, bide hori sakondu beharra ikusten dugu”**

Jarraian Eneko Etxeberría alkateak hartu zuen hitza. Alkatearen esanetan, Azpeitiak erronka garrantzitsuei aurre egin behar die datozen urteetan eta erronka nagusien artean, arlo ekonomikoa indartzea edota krisiak sortutako gizarte beharrei erantzutea, hirigintza eredu berri bat sortzea, Lapatz

eta zaborraren arazoa edota Alde Zaharraren biziberritzea aipatu zituen.

“Udala bultzatzaile nekaezina izango da erronkei erantzuteko orduan, baina Udalak ez ditu eskumen guztiak, beste instituzioek, eragileek, enpresak, sindikatuak, herriko taldeek... edota herritarrek zeregin handia dute guzti honetan” Horregatik, parte hartzeko guneak eta elkarlanerako zubiak indartzeko saiakera egingo dutela aipatu zuen.

Batzarrera hurbildu ziren herritarrek euren iritziak plazaratu nahi izan zituzten eta bat baino gehiago animatu zen hitz egitera. Besteak beste, “gaurkoa ariketa demokratikoa izan da eta zorionak”, “baloreen inguruko eztabaidan sakondu beharko genuke” edota “turismoa erakarri nahi bada, herria txukun mantendu eta auzolana bultzatu beharko genuke” agertu zuten zenbait bizilagunek.



Eneko Etxeberri alkatea eta Ainhoa Beristain eta Iñaki Portilla zinegotziak aurkezpenean.

## Ordenantza aitzindaria

Beraz, Azpeitiko herriak dituen erronkei aurre egiteko herritarren elkarlana ezinbestekoa izango da baina elkarlan horretarako guneak, ofizialak eta gardenak izan daitezen, parte-hartze ordenantza bat osatzen ari dira Udal ordezkariak.

Aitzindari izango den ordenantza hau, Udalaren funtzionamendua egokitze bide orria izango da. Hilabeteak daramatzate ordenantza prestatzen, ideia nagusiak definitu dira, baita zirriborroa prestatu ere. "Orain, ideia horiek txosten ofizial batetara itzultzeko fasean gaude. Eta horrek, lege desberdinak aztertu eta markatutako mugen barruan ibiltzera behartzen gaitu. Legea zorrotza baita gai hauetarako. Hilabete batean, bukatuta egotea espero dugu. Orduan, udalean eskatuta edota azpeitia.net-etik eskuratu ahal izango du edozein herritarrek. Nahi diren ekarpen guztiak egiteko beste hilabete bateko tartea irekiko dugu. Ekarpenean, internet bidez edota jada funtzionatzen duten gutunontzien bidez egin ahal izango dira. Ekarpene guztiak aztertuko dira, gero Udaleko batzordeetan berriro beste buelta

bat eman eta azkenik plenoan onartzeko. Dena den, ordenantzaren oinarritzko testua bukatu aurretik ere, ordenantzak dituen jasoko dituen ideia nagusiak aurkeztu eta zuen lehen inpresioa jaso nahiko genuke", jakinarazi zuen Beristainek.

## **"elkarlan horretarako guneak, ofizialak eta gardenak izan daitezen, parte-hartze ordenantza bat osatzen ari dira"**

Arautegia 16 urtetik gorako herritarrei eta erregistratuta dauden taldeei zuzenduta dago eta hainbat berrikuntza bilduko ditu. Berrikuntza hauek azaldu zituen alkateak; herri kontsultaren aukera arautzea izango delarik horietako bat. Erroldaren %20aren sinadurak aurkezten badira, galdeketa egingo da eskatzen den gaiaren inguruan. %30ak parte hartzen badu kontuan izango da galdeketa emaitza. Gai konkretuen inguruan alkatearen azalpenak ere eskatu ahal izango dira, horretarako herri kontseilua egingo da

beharrezko sinadura kopurua biltzen bada. Edota, arlo desberdinetan lanean diharduten mahaiei, auzo nahiz arloetako batzarrek gehituko zaizkie. Udaleko batzordeak eta oso bilkurak ere irekiak izango dira, edozein herritarrek parte hartu ahal izango duelarik.

Era berean, auzo alkatea figurak sortu nahi dituztela aurreratu zuten arduradunek. Auzo alkateak, Udalaren eta auzotarren arteko zubi lanak egingo ditu. Figura berria aukeratzeko modu desberdinak egongo dira; hautagai bakarra egonez gero, auzo batzarrek onartu beharko du. Aldiz, bi hautagai edo gehiago badaude, galdeketa bidez aukeratu da auzo alkatea. Azkenik, herritar orok izango du Udaleko informazioa eskatu eta jasotzeko eskubidea. Horretarako bitarteko desberdinak ezarriko dira.

"Ordenantza honekin, herritarrek eskubideak irabaziko dituzte eta Udalaren funtzionamendua behar berrietara egokituko dugu. Udaleko paretak harrizkoak baino kristalezkoak izan daitezen nahi dugu..." esan zuen Etxeberriak Udal garden b



Abenduaren 14ean egindako batzarrera gerturatutako herritarrak.

## Herritarren beharrei erantzungo dieten aurrekontuak

Horrela, eta esperientzia pilotu bezala, aurrekontu parte-hartzaileak prestatu ditu Udalak. 2012 urteko aurrekontuak aztertzeari ekin diote Udal zinegotziek eta herritarrek zeresan handia izango dute azken erabakian. 2012ko aurrekontuak bi fasetan banatu dira; batetik, urtarila eta bestetik, martxoa izango direlarik hilabete ardatzak: "Udala eta herria martxan jarraitzeko, oinarri-oinarizko aurrekontuak onartuko ditugu urtarillean. Jarraian, otsailean jakingo dugu 2011ko aurrekontuen likidazioa eta Gipuzkoako Foru Aldunditik etorriko den laguntzaren kopurua. Horregatik, dugun soberakina zenbatekoa den jakingo dugu eta berau prozesu parte-hartzailean jasotako behar eta ekarpenei erantzuten saiatuko gara aurrekontuetan txertatuz", azaldu zuen Eneko Etxeberria alkateak.

## "2012 urteko aurrekontuak aztertzeari ekin diote Udal zinegotziek eta herritarrek zeresan handia izango dute azken erabakian"

Egungo krisi egoerak herritarrei ez ezik, Udalari ere gogor eragin dio eta horrek aurrekontuak baldintzatuko ditu. Izan ere, sarrerak igo ez diren bitartean, gastuak handitu dira eta Udala margenik gabe gelditzen ari da gauzak egiteko. Hau ekiditeko, Udala behartuta dago gastu arrunten inguruan hausnarketa sakon bat egin eta neurriak hartzera. Hala ere, 2012ko aurrekontuak osatzerakoan Udalak izango dituen irizpideak honako hauek izango dira:

- Herriaren alde boluntario lanean ari diren taldeei diru-laguntzak ez murrizteko saiakerak.

- Behar sozialei erantzuna; Gizarte Zerbitzuak sailak ez du murrizketarik izango.

- Herriaren eta herritarren beharrei erantzungo dioten inbertsioak lehenetsi.

Herritar eta eragile guztien iritzia entzun eta jasotzeko, Udal hautetsiek bilerak antolatu dituzte, iradokizunak du udaletxe sarreran dagoen gutunontzian edota Udalaren webgunearen bitartez ere egin ahaliko dira. Jasotzen diren ekarpen guztiak aztertuko dira Udal organoetan. Ondoren, Udalak azken batzar batean azalduko du, zein ideia gauzatuko diren 2012ko aurrekontuetan. Zein utziko diren aurrerago gauzatzeko edota zein ideia baztertuko diren eta zergatik. Batzar horretan, Udalaren azken proposamena eztabaidatuko da. Bestalde, [azpeitia.net](http://azpeitia.net) webgunean aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren jarraipen zehatza egin ahaliko da.



# Bileren

# egutegia

abendua

|                                                             |                                                       |                                                                            |    |    |    |    |
|-------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------|----|----|----|----|
| 19                                                          | 20                                                    | 21                                                                         | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26<br>ARATZ-ERREKA<br>Tokia: TABERNAN<br>Ordua: 19:00-20.30 | 27<br>SOREASU<br>Tokia: SOREASU<br>Ordua: 19:00-20.30 | 28<br>XANJUANDEGI<br>Tokia: XANJUANDEGIKO ZAHARRETAN<br>Ordua: 20:30-22:00 | 29 | 30 | 31 |    |

urtarrila

|                                                                                                                 |                                                                                                                       |                                                                                      |                                                                                                                               |                                                                                                                                                                          |    |    |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----|----|
| 2                                                                                                               | 3<br>GARMENDIPE<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30                                                               | 4<br>ALDE ZAHARRA<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30                            | 5                                                                                                                             | 6                                                                                                                                                                        | 7  | 8  |
| 9                                                                                                               | 10<br>LOIOLA BIDE<br>Tokia: BETARRAK<br>Ordua: 19:00-20.30                                                            | 11<br>LASAO<br>Tokia: LASAOKO LOKALA<br>Ordua: 19:00-20.30                           | 12<br>MANTXINBENTA ARANA/SANTUTXO<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30<br>KULTURA<br>Tokia: BETARRAK<br>Ordua: 19:00-20.30 | 13<br>LANDETA<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30<br>JUANXXIII<br>TOKIA: SINDIKATUA<br>ORDUA: 19:00-20.30                                                            | 14 | 15 |
| 16<br>MERKATARIAK<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30<br>LOIOLA<br>Tokia: SOZIEDADEAN<br>Ordua: 19:00-20.30 | 17<br>EMAKUMEAK<br>Tokia: TXOKOA<br>Ordua: 19:00-20.30<br>NUARBE<br>Tokia: NUARBEKO SOZIEDADEAN<br>Ordua: 19:00-20.30 | 18<br>BASERRITARRAK<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30                          | 19                                                                                                                            | 20                                                                                                                                                                       | 21 | 22 |
| 23<br>FESTAK<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30                                                            | 24<br>GIZARTE ZERBITZUAK<br>(imigrazioa)<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30                                      | 25<br>GIZARTE ZERBITZUAK<br>(behar sozialak)<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30 | 26<br>KIROLA<br>Tokia: BAIGERA<br>Ordua: 19:00-20.30                                                                          | 27<br>GAZTEAK<br>Tokia: GAZTETXEA<br>Ordua: 19:00-20.30<br>GIZARTE ZERBITZUAK<br>(dependentzia, urritasun fisikoak, 3. adina...)<br>TOKIA: BAIGERA<br>ORDUA: 19:00-20.30 | 28 | 29 |
| 30<br>EUSKERA<br>Tokia: SINDIKATU<br>Ordua: 19:00-20.30                                                         |                                                                                                                       |                                                                                      |                                                                                                                               |                                                                                                                                                                          |    |    |

## Etorkinen integrazioaz eztabaida



**a**zkoitiko eta Azpeitiko ikastetxeetako ordezkariek osatzen duten lan taldea eta udaletxeetako ordezkariek, azaroaren 29an bildu ziren "Etorkinen integrazioa ikastetxean" gaiaz eztabaidatzeko. Guztira 28 ordezkarik inguru bildu ziren bertan eta arduradunak oso gustura agertu ziren emaitzarekin, "jasotako balorazioak oso positiboak izan ziren, parte-hartzaile orok planteatutako helburua lortu zela kontsideratu baitzen. Gehien baloratutako emaitzetako bat, udalen eta ikastetxeen elkarlanaren bitartez arazo amankomun bati aurre egiteko sortutako konpromisoa izan zen".

## Udaleko telefonoak, euskaraz



**U**dalaren historian lehenengo aldiz, telefonoak euskaraz hitz egingo dute. Euskarlek Azpeitiko Udaleri eman dion aukeraren bidez, udaletxeko telefonoetan jasotzen diren ahozko eta sms mezu guztiak euskaraz bakarrik jasoko dira: "Beste pauso bat eman du euskarak, oraingo honetan ere aurrera pausoa, euskararen pausoz pauso egindako bidea dugu, pauso txikiz egindako bide luzea, baina garrantzitsuenaz ez da telefonoak euskaraz egitea baizik eta guk telefonoaren bestaldean dagoenari euskaraz egitea", esan zuen Ainhoa Beristain zinegotziak abenduaren 3an egindako ekitaldian.

## Rebeka Larrañagaren karroza



**R**ebeka Larrañaga izango da 2012ko haurren danborradako karrozaren egilea. San Sebastian egunean Azpeitiko kaleetatik igaroko den karrozaren gaia Azpeitia: musika eta kirolean ardatz izango da, aurtten Akilino Amezua organo-egilea eta Joxe Aranburu Keixeta aizkolaria hil zirela 100 eta 50 urte betetzen baitira, hurrenez hurren. Hiru proiektu aurkeztu dira guztira, eta Batzordeko kideek aho batez hartu dute erabakia. "proiektuak eskatutako betebeharrak jasotzen ditu, eta gaia modu egoki, profesional eta eguneratuan aurkeztu ditu", azaldu dute arduradunek. Modu honetan, Larrañagak 1.500 euroko saria eskuratuko du.

## Gabonetako oparientzat gomendioak



**a**zpeitiarrek euskarazko produktuen katalogoa jaso dute euren etxeetan. Euskara, Gazteria eta Parekidetasun sailek bultzatutako liburuxkak Gabon garaian eros daitezkeen jostailu eta opari desberdinen lanketa eta sailkapena egiten du, izan ere, erosketak egiteko aholkuak ematea beharrezkoa ikusten dute arduradunek: "Azpeitiarrei dei berezia egiten diegu euskarazko produktuak erosi eta hauek aproposak izateko", agertu du Ainhua Beristain Euskara zinegotziak. Era berean, jostailuak umeentzat hezigarriak izatea eta askotan genero rolak finkatzearakoan hartzen duten pisuaz ohartarazi dute zinegotziek.



# Hemen dira santotomasak!

Aizkolari, harri-jasotzaile, pilotari eta bertsolari punta-puntakoak eta baserritik.com webguneko postuak dira nabarmentzekoak



## EGITARAUA

JULIAN BARRENETXEA 25.  
URTEURRENA:

URTE AMAIERAKO JAIALDIA

Lekua: Soreasu antzokian

Abenduak 21 Asteazkena

### SANTO TOMAS EGUNA

**10:00etan** IZARRAITZ TXISTULARIEN  
ESKUTIK diana kaleetan zehar.

**11:00etan** Frontoi Txikian eskuzko  
pilota partida finalak:

- 1.- Aurrebenjaminak
- 2.- Benjaminak
- 3.- Alebinak
- 4.- Infantilak
- 5.- Kadeteak

Udal Musika Bandaren kalejira

Ordu berean, Elciegoko Gaiteroak  
ibiliko dira kaleetan zehar

**12:00etan** XXIX. Antzerki Topaketetako  
Sari Banaketa.

AZPEITIKO UDAZKENEKO AZOKA  
BEREZIA

AIZKOLARI, HARRIJASOTZAILE  
JAIALDIA: PLAZA NAGUSIAN

Aizkolariak:

AZURMENDI Euskadiko Txapelduna

NAZABAL Euskadiko Txapeldun

ordealana: Enbor Bana nork golpe  
gutxiagotan ebaki

Harrijasotzailea:

AIMAR IRIGOYEN: 150ko zilindro  
zaharrarekin

GOENATXO II: 200eko  
errektangularrarekin

Aizkolariak:

AZURMENDI eta NAZABAL

PRUEBA MISTOA

Harrijasotzaileak: AIMAR ETA  
GOENATXO II

Lana: 113ko kubikoari 24 jasoaldi

Aizkolariak: AZURMENDI ETA  
NAZABAL

Harrijasotzaileak: AIMAR ETA  
GOENATXO II

Plaza Nagusiko kioskoan  
BERTSOLARIA

# agenda

## ABENDUA

|    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|
|    | 1  | 2  | 1  | 2  | 3  | 4  |
| 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |    |



### 20, asteartea

**JULIAN BARRENETXEA**

**25. URTEURRENA:**

**URTE AMAIERAKO JAIALDIA**

Lekua: Soreasu antzokian

### 21, asteazkena

**SANTO TOMAS EGUNA**

### 23, ostirala

**KONTZERTUA-**

**XABIER LETEREN oroimenez**

Lekua: Izarraitz pilotalekuan

Ordua: 22:30

### 23 – urtarrilak 4

**IRAURGI IKASTETXEKO JAIOZEN**

**ERAKUSKETA**

**BETHARRAM ARETOAN**

### 24, larunbata

**OLENTZERO**

### 25, igandea

**UDAL MUSIKA BANDA**

**KONTZERTUA**

Lekua: Sanagustin kulturgunean

Ordua: 13:00

### 26, astelehena

**SOREASU ANTZOKIAN**

**UMEEN ZINEMA**

17:00etan

**UMEENTZAKO GABONETAKO  
JOLAS PARKEA**

**GABONETAKO GAZTERIA**

**ESKAINTZA**

Zapo Txoko Gaztelekuko programazioa

### 27, asteartea

**SOREASU ANTZOKIAN**

**UMEEN ZINEMA**

17:00etan

**UMEENTZAKO GABONETAKO**

**JOLAS PARKEA**

**GABONETAKO GAZTERIA**

**ESKAINTZA**

Zapo Txoko Gaztelekuko programazioa

# Azpeitiko Udalak Gabon zoriontsuak opa dizkizue

Abenduaren 24ean Mari Dominginek haurren gutunak jasoko ditu goizean eta 18:00etan Olentzero etorriko da.

Errege Magoak, berriz, urtarilaren 5ean 17:30ean iritsiko dira trenez Azpeitira



## botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74  
Abenduaren 8, 12, 17, 18, 23, 25, 28 eta 29an.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2  
Tel.: 943 81 13 50  
Abenduaren 1, 2, 3, 4, 7, 9 eta 21ean.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49  
Abenduaren 6, 10, 11, 15, 22, 27 eta 30ean.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74  
Abenduaren 13, 16, 19 eta 31n.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58  
Abenduaren 5, 14, 20, 24 eta 26an

